

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2017ko uztailaren 27an aurkeztuko du

Ken Jacobs: *Gonbidatuak*

Ken Jacobs: *Gonbidatuak (The Guests)*

- Datak: 2017ko uztaikak 27–azaroak 19
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

2017ko uztailearen 27tik azaroaren 19 arte, Guggenheim Bilbao Museoa Ken Jacobs artistaren *Gonbidatuak (The Guests, 2013)* hartuko du; lan hori lehen aldiz aurkeztuko da Espainian. Bideoarte, bideoinstalazioa eta irudia mugimenduan darabiltzaten artelanak erakusteko 2014an ireki zenetik Film & Video aretoan ikusgai ipintzen den hamaikagarren artelana da.

“Mundua desberdina litzake gure begiak desberdinak balira”. Hitz horiek baliatzen zituen Ken Jacobsek bere lanaren helburu nagusia adierazteko: egia eta irudien egiazkotasuna ez ezik, ikusleak munduaren hiru dimentsioko izaera esperimentatzeko modua zalantzan ipini dezan sustatzea. Ken Jacobs artistak (New York, 1933) bere emazte eta lankide Florence Jacobsekin batera sortu zuen *Gonbidatuak* lana, eta zinemagintzaren sortzaile izan ziren Lumière anaien jatorrizko film bat baliatu zuten horretarako: bietako baten alaba 1897an ezkondu zenean grabatu zuten filma, hain zuzen. Zinta labur horretan, kamerak elizaren barrutik filmatzen ditu gonbidatuak tenpluko eskaileretan gora prozesioan, bertan sartzen.

Ken Jacobsek Lumière anaien filmaren egitura distortsionatu eta haren denbora berariaz manipulatu du, 74 minutuko muntaia hipnotiko bilakatu arte. Era berean, sakontasun-ilusioa aldatu, eta zehazgabetasun dramatiko eta denbora gelditu baten sentsazioa sortzen du ikuslearengan. Filmaren edukiaren eta errealismo zinematografikoaren denbora-gelditze hori “eternalismo” kontzeptuarekin lotuta dago, 1970eko hamarkadan bere lan esperimentalen testuinguruan artistak sortu zuen terminoarekin, hain zuzen.

Efektu optiko hori lortzeko, Ken Jacobsek Florence Jacobs emazte eta ohiko kolaboratzailearen laguntza izan zuen; harekin besoz beso lanean, jatorrizko filma diseinatu eta fotograma bakoiti eta bikoitiak banatu zituen, ondoren horiek diapositibetan jarri eta bi karrusel desberdinetan aldi berean proiektatzeko, fotograma bakoitza aurrekoari gainjarrita. Ez da irudi bikoiztu bat, bi fotograma desberdin baizik: bi instante, bata besteari gainjarrita. Horri esker, begiek txandaka ikusten dute aurretik doan fotograma, eta horrela, filma modu estereoskopikoan berreraikitze aukera izan zuen artistak: 3D filma da horren emaitza. Ekintzaren geldotasun amaiezinak eta espazio historiko eta helduezin batek berreskuratutako dentsitateak dokumentutik harago dagoen plano batera daramate Lumière anaien materiala, irudiaren misterioaren zuzeneko esperientzia hipnotikoari bide egiteko.

Modu horretan, Lumière anaien zinema-dokumentua geldotu egiten da, aldi berean analitiko eta hipnotikoa den esperientzia bilakatzeraino.

Artistaren beste lan batzuk

Esperimentatzaile nekaezin eta oparoa da, ikustearen ekintza performancera hurbiltzen duten sentazioen atzetik dabil beti; 1970eko hamarkadatik aurrera “Eternalismo” kontzeptua garatu zuen, eta *The Nervous System* (Sistema artega) eta *The Nervous Magic Lantern* (Esku-argi magiko artega) bezalako proiektio-gailuak sortu zituen —azken hori 2000. urtea eta gero—. Begi bakar batek hiru dimentsiokotasuna atzemateko duen gaitasuna esploratzeko, Jacobsek eguneroko bizitzan modu espontaneoan hartutako irudietako argia eta abiadura manipulatu, eta klip ugari sortzen ditu. Aretoko gelaurrean dagoen monitoreak berriki egindako sei lanen hautaketa hartzen du; klip horietan gure eguneroko esperientziak (kale batetik ibiltzea, telebista ikustea, autoz joatea) “eternalizatu” egiten dira eta begizta denboragabe, psikodeliko bilakatzen.

Ken Jacobs. Biografia

Ken Jacobs (New York, 1933) funtsezko artista da New Yorken 1960ko hamarkadatik aurrera garatuko zen giro esperimental ulertzeko, eta ondorengo urteetako kulturaren eragin erabakigarria izan zuen. Hans Hoffmann-en gidaritzapean margolari ikasketak egin ostean, lehenengo filmak 1960tik aurrera egin zituen, eta Film-Makers' Cooperative eta The Bleecker Street Cinema kolektibo ospetsuetako kide izan zen, besteak beste. 1966an Florence Jacobs emazte eta ohiko kolaboratzailearekin batera Millennium Film Workshop sortu eta lehen erreferentziazko filma (*Tom, Tom, The Piper's Son*, 1969) zuzendu ostean, Jacobsek gero eta abstraktuagoa zen eremu batera eramane zituen bere ikerketak; sakontasunaren ilusioak eta hori zinemagintzan modu askean manipulatzeko moduak erabat hartuta zuten eremu batera, hain zuzen.

Ken Jacobsek hainbat sari eta ikerketa-beka jaso ditu, hala nola: Maya Deren Award eta John Simon Guggenheim Fellowship sariak, eta National Endowment for the Arts, Rockefeller Foundation eta New York State Council on the Arts bekak. 1969an Jacobsek Binghamton University-ko zinema saila sortu zuen Larry Gottheim-ekin lankidetzan; zinema esperimentalari soilik eskainitako lehen departamentuetako bat da, eta artista bertan aritu zen irakasle lanetan 2002 arte. Bere film, bideo eta performanceak nazioarteko sona duten bienale eta museoetan aurkeztu dira, New Yorkeko museoak barne: The American Museum of the Moving Image, The Whitney Museum of American Art eta The Museum of Modern Art; halaber, Berlin, Londres, Hong Kong eta Rotterdamgo zinema-festibaletan ere egon da.

JARDUERAK

Performancea eta solasaldia Ken Jacobs artistarekin (uztailak 28)

Ken Jacobsek *The Nervous Magic Lantern* (Esku-argi Magiko Artega) performance aurkeztuko du uztailaren 28an, arratsaldeko 19:00etan, Guggenheim Bilbao Museoko Entzugelan. *Filmerik gabeko zinemaren* esperimentazioa izango da performancearen ardatza, eta Florence Jacobs

emaztearekin lankidetzan gauzatu du. Emanaldia amaitu ondoren, artistak hitzaldia emango du eta ikusleek harekin solasteko parada izango dute.

Film & Video (103. aretoa)

Film & Video aretoa bideoarteari, bideoinstalazioari eta irudia mugimenduan darabilten lanei eskainitako gunea da; bertan biltzen dira nola Guggenheim museoetako artelanak, hala nazioarteko beste bilduma batekoak. Areto honetako programazioa 2014ko martxoan hasi zen Christian Marclayren *Erlojua* (*The Clock*, 2010) instalazioaz; ondoren, berriz, Ragnar Kjartansson artista islandiarrak *Bisitariak* (*The Visitors*, 2012) instalazioa aurkeztu zuen; 2014ko urritik 2015eko martxora, Rineke Dijkstra-ren *The Krazyhouse* (*Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee*) *Liverpool, UK* bideoinstalazioa ikusteko parada izan genuen; urte horretako martxotik eta uztail arte, *Hariaren ibilbideak* (*Thread Routes*, 2010) deitutako Kimsooja artista kontzeptualaren seriea ikusi ahal izan genuen. Hurrengo artelana, Shahzia Sikander-en *Paralajea* (*Parallax*, 2013) izan, 2015eko azaro arte ikusgai izan zena; ondoren *Ezagutzen ez denaren hodeia* (*The Cloud of the Unknowing*) etorri zena, Singapur-eko Ho Tzu Nyen artistarena, abenduaren 3tik 2016ko apirilaren 24ra ikusgai egondakoa. Eija-Liisa Ahtilaren *Deikundea* (*The Annunciation–Marian Ilmestys*), 2016ko maiatzaren 12tik abuztuaren 28ra ikusgai izan zena. Ondoren, Sam-Taylor Johnson-en *Hasperena* (*Sigh*, 2008), 2016ko irailaren 8tik abenduaren 11rarte; Fiona Tan-en *Ekialdeari begira, galduta* (*Disorient*, 2009) ikusgai izan zen, abenduaren 22tik 2017ko martxoaren 19rarte. Ikusgai egon zen azken artelana Pierre Huyguen (*Titulurik gabea*) *Giza maskara* [(*Untitled*) *Human Mask*, 2014] lana izan da, martxoaren 30etik uztailaren 16rarte.

Azaleko irudia:

Gonbidatuak (*The Guests*), 2013

3D filma zuri-beltzean eta koloretan, soinuduna, 74 min

Artistaren eskaintza

Argibideak:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia www.guggenheim-bilbao.eus duzu eskueran (prentsa-eremua).

Prentsa irudiak:
Gonbidatuak (The Guests), 2013
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Ken Jacobs

Gonbidatuak, 2013

3D filma zuri-beltzean eta koloretan, soinuduna, 74 min

Artistaren eskaintza



Ken Jacobs

Tximu Erregearen bila, 2011

Koloretako filma bereizmen handiarekin, 5.1 soinu inguratzailea, 39 min 42 s

Musika: JG Thirlwell

Artistaren eskaintza



Ken Jacobs

Beste zeregin bat, 2011

Bideoa zuri-beltzean eta koloretan, soinuduna, 15 min

Musika: Rick Reed. Bideoaren edizioa: Nisi Jacobs

Artistaren eskaintza

